

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: 0583

GAIA: Goiena komunikazio zerbitzuei 2023.urteko ekarpena.

ESPEDIENTEA: 2023EDI20001

INTERESDUNA: GOIENA komunikazio zerbitzuak

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 33.904,00 € euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du GOIENA komunikazio zerbitzuak elkartearen alde, 2023. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko (Telebista eta Aldizkaria).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmeneta eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak ikusita,

Horiek horrela, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta GOIENA komunikazio zerbitzuak elkartearen artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- GOIENA komunikazio zerbitzuak elkarteari 33.904,00 €-ko dirulaguntza ematea, 2023. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.(Telebista eta Aldizkaria)

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren bosgarren klausulan jasotakoaren arabera, urteko lehenengo hiru hilabeteak ordainketa bakarrean ordainduko dira, hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren. Gainontzeko ordainketak, hilabetero egingo dira.

LAUGARRENA.- 33.904,00 €-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0600.471.335.00.01 partidari egozte.



ERANSKINA

ESKORIATZAKO UDALA ETA GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEAREN ARTEKOA

Eskoriatzan, bi mila eta hogeita hiruko apirilean.

BILDURIK

Alde batetik, Iban Arantzabal Arrieta jauna, NAN 72.455.964F duena, adinez nagusia, Goiena Komunikazio Taldearen izenean eta errepresentazioz.

Eta bestetik, Jose Ramon Zubizarreta Alegria, Eskoriatzako Udalako alkatea, beronen izenean eta ordeaz diharduena, horretarako behar bezala ahalmendua dagoelarik.

Bi aldeek hitzarmena egiteko eskuduntza eta gaitasuna aitortzen diote elkarri

LEGE TESTUINGURUA

Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak herritarren hizkuntza eskubideak aitortu eta herri-aginteez hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen ditu. Albisteak eta informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea aitortzen die herritarrei, besteak beste. Lege horren arabera, beraz, Euskal Herriko herri-aginteez –eta, zehazkiago esanda, udalez– euskara zabaldu eta zabaltzen laguntzeko obligazioa dute, baita komunikabideen arloan ere.

Horretaz gain, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, 7. artikuluan zehazten du udalei izendatzen zaiela eskumen propio gisa, izendatuta daukaten arloetako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena.

AZALPENAK

Handia eta aberatsa izan da azken urteotan Eskoriatzan eta Debagoienera herri eta eskualde komunikabideen alde egindako lana eta ahalegina. Horren fruitu emankor bilakatu dira herritarrengandik hain harrera ona eta beroa jaso duten Goiena papera eta Goiena Telebista, besteak beste.



Proiektu horietan Eskoriatzako euskara elkarteak ere berebiziko garrantzia izan zuen, besteak beste bere ekimenez sortu baitziren komunikabideok. Herri aginteek, bestalde, ezinbesteko bultzada eman diete, behar zituzten azpiegiturak, baliabideak, dirulaguntzak eta babesa eskainiz. Herri ekimenaren eta administrazioaren arteko elkarlanaren fruitu dira, beraz, gaur egun Goienak kudeatzen dituen komunikabideok. Eskoriatzako Udalak garrantzi handiko deritza Goiena Komunikazio Taldeak egiten duen lan eskerdari behar bezalako laguntza ematen jarraitu eta, bide batez, geroa ziurtatu eta sendotzeari ere.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

2020ko martxoaren 17an, Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartu zen, eta Udalbatzarrak 2022ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez eguneratu dago. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako bosgarrena "Euskara" izenekoa da.

Lerro horren D ekintza "Goiena Komunikazio Koop.E.-ri dirulaguntza" izenekoa da. Helburua da Debagoieneko gainerako udalekin batera, eta Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak emandako laguntzekin, Goiena Komunikazio Koop.Elkarteak euskarazko komunikabideen arloan egiten dituen jarduerak finantzatzen laguntzea. Hori horrela, Eskoriatzako Udaleko 2023ko aurrekontuetan Goiena Komunikazio Koop. elkartearentzako 33.904 €-ko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da.

Hori guztia dela eta, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorreko 22. artikuluan eta horrekin bat datozen arauetan ezarritakoaren arabera, alde biek ondorengo baldintzek arautuko duten hitzarmen hau sinatzen dute.

KLAUSULAK

LEHENENGOA.- HITZARMENAREN HELBURUA.

Hitzarmen honen helburua da 2023ko ekitaldiko udal aurrekontuan Goiena Komunikazio Koop. Elkartearen izenean dagoen dirulaguntza izenduna antolatzea. Dirulaguntza hori izango da GOIENA kooperatibak 2023. urtean eskainiko dituen eskualderako komunikazio zerbitzuekin, Goiena Telebista eta Goiena papera, sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.



BIGARRENA.- ESKORIATZAKO UDALAK EGIN BEHARREKO JARDUERAK.

EKONOMIKOAK:

Eskoriatzako Udalak konpromisoa hartzen du gehienez ere 33.904 euroko dirulaguntza emateko aurrekontuko 0600.471.335.00.01 aplikazioaren kargura Goiena papera eta Goiena telebistaren jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- GOIENA KOMUNIKAZIO KOOP. ELKARTEAREN BETEBEHARRAK

- 1.- Dirulaguntza ematea eta laguntza hori emateko arrazoia eragin duten baldintzak bete direla justifikatzea.
- 2.- Goienaren paperezko aleak argitaratu eta banatuko dira Eskoriatzan eta Goiena telebistaren seinalea eramango du herrigunera, horretarako behar diren inbertsioak eginda. Berdin webgunearekin ere, irekian jarriko da.
- 3.- Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea jarraipena egin ahal izateko eta Udalak eman dezakeen laguntzarako. Informazio hau udalen kontseiluaren bidez jaso ahal izango da, baita Errektore Kontseiluan Debagoieneko udalek dituzten bi ordezkarien bitartez, zein Batzar Nagusian ere.
- 4.- Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, horren berri ematea Udalari.
- 5.- Udalak egin beharreko egiaztatze lanak onartzea, bai eta eskuduntza izendaturik duten kontrol organoek -estatukoak nahiz erkidegokoek- egin ditzaketen egiaztatze eta finantza kontrolerako beste edozein ere, eta lan horiek egiteko errekeritzen zaien informazio guztia ematea.
- 6.- Zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean izatea hitzarmena sinatu baino lehen eta hitzarmenaren indarraldiak dirauen bitartean. Horretarako, hitzarmen hau sinatzearekin, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gizarte Segurantzaren edo eskuduntzak dituen beste erakunde edo administrazio publikoren batean dagozkion ziurtagiriak telematikoki lortzeko baimena ematen zaio, berariaz, Eskoriatzako Udalari.
- 7.- GOIENA kooperatibak genero-ikuspegia txertatuko du eskaintzen dituen komunikazio-zerbitzuetan, komunikazio ez-sexistaren irizpideak bereziki zainduz. Horretarako, ekintzen memorian, garbi jasoko du, komunikazio-zerbitzuetan genero-ikuspegia txertatzeko zein neurri hartu diren: publizitatean, emakumearen presentzia bermatzerakoan, edukien trataeran, formazio planean ... Aldi berean, Goiena kooperatibako langileen arteko harremanetan, langile eta bezeroen artekoetan zein beste zerbitzu edo pertsonetikikoetan berdintasunezko tratua bermatzeko neurriak



hartuko ditu. Goienak badu parekidetasuna zaintzeko estilo liburua eta errekonozitua da euskal kazetaritzaz EHUK egindako ikerketan parekidetasuna ongien lantzen duen hedabide moduan. Goienak publikoki du sinatua Emakunden proposatutako kodigo ez-sexista betetzeko konpromisoa. Hitzarmen honek bide horretan jarraituko duela ziurtatzen du.

8.- Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon zehaztapenak betetzea.

9.- Eskoriatzako Udala babesle moduan agertuko da, bai Goiena paperean bai Goiena telebistan, baita ekintza horien kartel iragarleetan ere.

10.- Jarduera eta ikuskizun publikoen antolaketari buruz indarrean dagoen legedia betetzea, eta baita dagokion jarduera eremuari aplikatu dakiokeen estatuko edo erkidegoko gainerako legedia ere. Elkartea joko da diruz lagundutako jardueraren antolatzaile bakartzat, eta beraz, bera izango da aipatutako jarduera normaltasunez edo normaltasunetik kanpo egiteagatik sor daitekeen ondare erreklamazioari aurre egiteko erantzule zibil bakarra. Edozein modutan ere, egon daitezkeen erreklamazioetatik salbuetsita geldituko da Udala. Goienak erantzukizun zibileko aseguruia izango du ekitaldiok antolatzeko.

11.- 2023. urteko ekintzen azalpen memoria aurkeztuko du Goiena Komunikazio Taldeak hurrengo urteko lehen hiruhilekoan, dirulaguntza xede duten ekintzena.

LAUGARRENA.- BESTE LAGUNTZA BATZUEKIN PILATZEKO AUKERA ETA FINANTZAZIO MUGAK.

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da helburu bererako Udalak edota beste erakunde publiko edo pribatuek emandako dirulaguntzarekin. Hala ere, inolaz ezin izango da onartu gain-finantzaziorik diru-laguntza honetako subjektu diren produktuetan. Horrelakorik gertatuz gero, emandako dirulaguntza murriztu egingo da diruz lagundutako ekintzaren kostu totalaren mugara.

BOSGARRENA.- DIRULAGUNTZA ORDAINTEKO EPEAK.

Hitzarmen honek finkatzen duen dirulaguntza hamabi zatitan ordainduko dio Eskoriatzako Udalak Goiena Komunikazio Taldeari. Hitzarmen hau sinatu eta aipatzen den dokumentazioa aurkeztu ondoren, berehala ordainduko du Eskoriatzako Udalak urte hasieratik hona pasatu diren hilabeteen likidazioa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Entitatearen IFKren kopia
- Ordezkararen NAN fotokopia
- 2023rako jarduera programa.



- 2023rako diru sarreraren eta gastuen aurrekontu xehatua.
- Helburu bererako eskatutako edota jasotako beste laguntzei buruzko zinpeko aitorpena.
- Dirulaguntza ordaindu beharreko banku-kontuaren gaineko ziurtagiria.
- Gizarte Segurantzarekiko, Eskoriatzako Udalarekiko eta Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzea.
- 2021eko elkartearen finantza egoera, enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda. Aipatutako finantza egoera ikuskatuak aurkezteaz gain, lagundutako programei dagokien deskargu ekonomikoa aurkeztu beharko da, benetan sortu diren gastuak eta diru sarrerak adierazita, eta baita horiek egozteko erabili diren irizpideak ere.

SEIGARRENA.- DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

2024ko lehen hiruhilekoan, eta justifikazio ondorioetarako, Goiena Komunikazio Koop. Elkarteak 2023. urteko ekintzen azalpen memoria aurkeztuko du, dirulaguntza xede duten ekintzena eta elkarteak egindako ekintza guztiena; eta, horrekin batera, lortu dituen emaitzen balorazioa.

2024ko ekainaren 1a baino lehen, 2023ko elkartearen finantza egoerak aurkeztu beharko ditu, enpresa eskudunak auditaturik, dagokion erregistro ofizialean behar bezala izena emanda. Aipatutako finantza egoera ikuskatuak aurkezteaz gain, lagundutako programei dagokien deskargu ekonomikoa aurkeztu beharko da, benetan sortu diren gastuak eta diru sarrerak adierazita, eta baita horiek egozteko erabili diren irizpideak ere.

ZAZPIGARRENA.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Bi aldeek beharrezkotzat jotzen dute hitzarmenaren jarraipen batzordea eratzea. Aurreikusitakoa eta hartutako konpromisoak betetzen direla zainduko du batzordeak eta orokorrean etorkizunean gertatu litezkeen auziaz arduratuko da.

Batzorde horretako kide izango dira:

- Udalaren aldetik: Euskara arloko zinegotzia edo berak eskuordetutako pertsona.
- GOIENA KOMUNIKAZIO KOOP. Elkartetik: Iban Arantzabal Arrieta edo berak ordezkaturako pertsona.

ZORTZIGARRENA.- INDARRALDIA.

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2023ko abenduaren 31ra arte iraungo du.

**BEDERATZIGARRENA.- SUNTSIPENA.**

Hitzarmen hau alde biek hala adosten dutenean suntsituko da. Era berean, alderen batek baldintzetakoren bat betetzen ez duenean ere suntsitu egingo da, betiere, hilabete aurretik alde horri kontratua suntsituko dela era fede-emailean jakinarazi eta gero.

Bi aldeek ez badituzte dagozkien betebeharrak betetzen, hitzarmena bertan behera uzteko prozedura hasiko da. Hitzarmena bertan behera utziz gero, hitzarmena bete duen alderdia bere betebeharrak betetzetik salbu geratuko da.

HAMARGARRENA.- Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta indarrean dagoen gainontzeko legedia aplikatuko da.

Eta, ados daudela adierazteko, alde biek hitzarmen hau sinatzen dute ondorio bakarrerako, goiburuan adierazitako lekuan eta sinaduran adierazitako egunean.

Iban Arantzabal Arrieta
Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusia

Jose Ramon Zubizarreta
Eskoriatzako alkatea